nº 25

LABURPENA

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2022

www.ararteko.eus

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo

Lan hau Creative Commons
Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0) lizentziapean dago

ARARTEKO
Vitoria-Gasteiz, 2023
Diseinua, maketazioa eta imprimaketa: Editorial MIC
ISSN-e 2255-4912

www.ararteko.eus

AURKIBIDEA

00. Aurkezpena 2
01. Arartekoaren jarduera zenbakitan 4
02. Jarduerak 6
03. Erakunde adierazpenak 16
05. Beste jarduera batzuk 18
06. Haur eta nerabeentzako bulegoa 28
Informazio interesgarria 30

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

Askoz indartsuagoak gara laguntzen dugunean […], gure aniztasuna ospatzen dugunean […] eta elkarrekin bidegabekeriaren harresi ahaltsuak eraisten ditugunean.

-Cynthia McKinney, politikari eta ekintzaile estatubatuarra-

Ararteko erakundearen jarduera aurkeztea beti aukera berezia izaten da euskal administrazioek egiten dituzten zerbitzu publikoen jardunari buruz euskal gizarteak erakundeari helarazi dizkion kezkak aztertzeko.

COVID-19aren pandemiaren ondoren, normaltasunera itzultzeko urtea izan da 2022a. Pandemiak ondorio iraunkorrak utzi ditu pertsonen osasunean eta osasun-zerbitzuen tentsio-egoeran. Gai lazgarri batzuek Ukrainako gerra kasu aurrez aurre jarri dituzte euskal iritzi publikoa eta giza eskubideen urratze larri eta masiboen errealitate onartezina.

Arartekoaren jarduerak bere ohiko martxa jarraitu du. Normaltasun horri eutsi zaio arartekoaren ondokoak, hilabete batzuetan, jarduneko arartekoaren eginkizunak arduraz eta konprometituta bete dituenean.

Beste behin ere, gure jarduera osoa areagotu egin da eta: 12.700 jardueratara iritsi da. Herritarrek 7.504 kexa eta kontsulta egin dituzte, ofiziozko 21 espediente hasi ditugu eta telefonozko 4.989 kontsultari erantzun diegu. Orobat, ahalegin handia egin da kanpoko lankidetza sustatzeko: zehazki, 209 bilera eta era guztietako ekitaldiak egin dira.

Euskal administrazio publikoen jarduerari dagokionez, nabarmendu behar da Arartekoak iaz kudeatu zituen espedienteetatik %88tan baino gehiagotan, eragindako administrazioak zuzendu edo aldatu egin zuela kexa sortarazi zuen jarduera.

Hala ere, COVID-19agatiko itxialdiak jarduerak etenarazi ondoren, euskal administrazio batzuk ez dira behar bezala arduratu Arartekoarekin lankidetzan aritzeaz.

Horrela, Arartekoak kezkatuta ikusi du nola apurka-apurka arreta gutxituz joan den kexa-espedienteetako informazio-eskaerei erantzuteko orduan, baita ere gure ebazpenak onartzen diren ala ez jakinarazteko orduan; horren ondorioz, luzatu egiten da kexak ebazteko denbora.

Hortaz, Arartekoak zenbait neurri abiarazi ditu administrazioei bidaltzen dizkien jakinarazpenei buruzko arreta-errekerimenduak areagotzeko. Horrela, harremanak sendotu ditu eta gogorarazi du Arartekoari ez laguntzeak zer-nolako ondorioak dituen herritarren eskubideak bermatzeko eta erakundeak berak sinesgarritasuna izateko.

Era berean, azpimarratu behar da 2022an 3 lege onartu direla, Arartekoari emandako eginkizunak betetzeko funtsezkoak direnak:

1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa. Lege horrek 4/2005 Legea, otsailaren 18koa aldatu du.

14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.

15/2022 Legea, uztailaren 12koa, integrala, Tratu berdintasunerakoa eta diskriminazioa ekiditekoa.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak nabarmendu du, hain justu, honetaz ohartu beharra daukagula: haur eta nerabeen, desgaituen, atzerritarren, migratzaileen, ijito herriko kideen edo LGTBI pertsonen eskubideak bermatzen lan egin nahi bada, euskal administrazio publikoek erakunde-agendan izan behar dutela, une oro, ez diskriminatzeko printzipioaren zeharkako ikuspegia,

Nazioarteko jardueren artean, bereziki nabarmendu behar da erakunde honek Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren (FRA) txosten batzuetan parte hartu duela; Emily O'Reilly Europako herriaren defendatzailea bisitan etorri zela Euskadira, Arartekoak gonbidatuta; justizia klimatikoari buruzko ENYA foroa antolatu zela (Europako zenbait herrialdetako neskato-mutikoak bertan hartuta), baita Hizkuntz Komisarioen Nazioarteko Sarearen (IALC) urteko biltzarra ere, biak Bilbon.

2023rako, hitzematen dut erakunde honek ahaleginak egingo dituela euskal gizartearentzat erakunde baliagarria izaten jarraitzeko, Euskadiko herritarren eskubideak defendatzen.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN BULEGOAREN JARDUERA, ZENBAKITAN

2022an zehar, **12.704 jarduketa** egin dira guztira (aurreko urtean baino pixka bat gehiago); horietatik, **7.504 kexei eta kontsultei** dagozkie eta 21 ofiziozko espedienteei (arloka, Haur eta Nerabeentzako Bulegoari eta segurtasunari dagozkionak nabarmentzen dira).

Zuzeneko arretaren bulegoetan guztira 9.653 zerbitzu eman ditugu. Horietatik, 4.664 hiru bulegoetako batean aurrez aurre aurkezturiko kexak eta kontsultak izan dira, eta 4.989 zerbitzu telefoniko bidezko aholkularitza eta informazioari buruzkoak izan dira.

2022an, 58 **bilera** egin ditugu gizarte-erakundeekin eta aktiboki hartu dugu parte funtsean administrazioek, gizarte-erakundeek eta defentsa-erakundeek sustaturiko ekimenekin loturiko hainbat ekintza, jardunaldi eta ekitalditan; autonomia-erkidego eta estatu mailan zein nazioartean. 2022an mota horretako 147 jarduera izan dira. Era berean, Arartekoak Europara zein nazioartera begira garatu dituen 28 jarduerak nabarmentzen dira.

2022an zehar, **2.328 kexa-espediente ebatzi** dira, eta **1.355 ebazpen** eman dira. Gainerako kasuetan, erabaki da kexak behingoan ez onartzea, bikoiztuta zeudelako, beste herriaren defendatzaile batzuei aurkeztu zitzaizkien-eta; ebazpen judizialaren zain zeudelako edo epai irmoa zutelako; auzibidera jo zelako, eta abar. Kexa-prozeduren batez besteko iraupena 66 egunekoa izan da.

Arartekoari 2022an egindako kexak eta kontsultak



Arartekoaren jarduera guztiak 2022an

Kexak eta kontsultak	7.504
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	4.989
Kanpoko jardueretan parte hartzea	119
Laneko bilerak administrazioekin eta gizarte erakundeekin	58
Nazioarteko eta beste defentsa-erakunde batzuekiko jarduerak	28
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	4
Ikuskatzeko bisitak	2
Guztira	**12.704**

Kexa-espediente horiek aztertuta, ikusi dugu horien **%47an** ukitutako administrazioak **oker jardun** zuela; ehuneko hori aurreko urtekoa (%45) baino handiagoa da. Kasuen %88an, ukitutako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna aldatu eta zuzendu du. Kasu gehienetan, Arartekoak ez du gomendio formala egin beharrik izan.

Kexek hizpide duten **gai-arloaren** arabera gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei loturiko erreklamazioak pixka bat jaitsi direla antzeman dugu: 458 (2021ean 508 izan ziren). Kexa-espediente horietatik, %90 baino gehiagok **Lanbideren** funtzionamendu txarrarekin zerikusia daukaten arazoak dituzte hizpide, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzearen arloan burutu dituen jarduketekin loturikoak ere.

Izapideturiko kexa-espedienteen **%46** inguruk lotura dute **gizarte-eskubideekin** (osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza eta abar).

Halaber, kexetako asko **arreta publikoko kolektiboei** buruzkoak dira, %6a baino pixka bat gehiago. Espediente horietako askok (gizarteratze arlokoak barne) pertsona guztien **berdintasun erreala eta eraginkorra** bermatzeko politika publikoekin zerikusia dute, eta horien helburua da emakumeek, adinekoek, haur eta nerabeek, ezgaitasunen bat duten pertsonek, LGTB kolektiboak, immigranteek, ijitoek eta abarrek eskubide hori baliatzeko dituzten eragozpenak desagerraraztea.

Administrazio bakoitzari eragiten dioten espedienteen proportzioari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea 2022an (ia %54), eta euskal udalen jarduketei buruzko kexak aldaketa handirik gabe mantentzen dira (%34). %10 inguruk foru-aldundiei eragiten die.

Nolanahi ere, espedienteetan ukitutako administrazioen jardunak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta erreklamazioak beren jarduketaren bat izan duela hizpide.

ASEBETETZE-MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bideari ekin genion, Arartekoaren esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini gabe, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioaren berri izan dezakegu.

Emaitzak baloratzeko orduan, kontuan izan behar dugu, 2022an izapidetzen amaitu dugun kexa guztietatik, soilik kasuen %48an jo dela ukitutako administrazioak oker jardun duela.

Arartekoaren langileek **eskainitako arreta** nola baloratuko luketen galdetuta, herritarren **%72ak** uste du ***"arreta ona edo oso ona"*** izan dela.

Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako izapideak), ia %72ak baino gehiagok uste du oso positiboa edo positiboa izan dela.

Ia **%84k Arartekora jotzeko gomendioa emango luke** administrazioarekin edozein arazo izanez gero.

Gainera, azken urteotan Arartekoaren bi tresna giltzarriren inguruan galdetu dugu: **web-orria**, gure zerbitzuei buruzko informaziorako eta herritarrekiko elkarreraginerako oinarrizko elementu gisa (erabiltzaileen %72ak ezagutzen du), eta Arartekoaren **zerbitzuen karta**, kalitateari buruzko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak biltzen dituena, bai eta horiek erabiltzeko modua ere (inkesta bete duten pertsonen %57ak ezagutzen du). Inkestaren emaitzetan oso positiboki nabarmentzen da Arartekoan kudeaketak egiteko erraztasuna.

Emaitza hauekin ondoriozta dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzea (alegia, erakunde honen jardueraren eta baliabide pertsonalen mende dagoena) dakarten arloei buruzko iritziak aztertzen direnean, positiboa dela egindako lanaren inguruko balorazioa.

Azkenaldian, era berean, Arartekoak ematen dituen zerbitzuei buruzko iradokizunen edo iritzien aurkezpena bultzatu da eta Zerbitzuen karta erreformatu da. 2022an 11 eskaera eta kexa aurkeztu dira.

Gainera, Zerbitzuen kartaren erreforman, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta datu pertsonalak babestearekin loturiko eskubideak baliatzea txertatu dira. Esparru horretan beste 16 eskaera aurkeztu eta izapidetu dira.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?



EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK EDOSKITZE-BAIMENA HARTZEKO MODALITATE DESBERDINEN ARTEAN AUKERATZEN UTZIKO DIO HERRITAR BATI

Herritar batek Arartekoari esku hartzeko galdegin zion, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren esparruan gurasotasun-baimenak nola aplikatzen dituen ikusteko, zehazki, edoskitze metatua baliatzeko aukera.

2021eko martxoan, kexagilea aita izan zen adopzio bidez. Lehendik jakinarazi zion Hezkuntza Ordezkaritzako Bigarren Hezkuntzako Langileen Zerbitzuari gertakari hura jazoko zela eta adopzioagatiko baimena bi zatitan hartzeko asmoa zuela (bigarren zatia, 2021-2022 ikasturtean), eta jarraian edoskitze-orduak metatzeari dagokion ordaindutako baimena hartuko zuela.

Bere esanean, zerbitzu horretan arlo horretaz arduratzen den pertsonak ziurtatu zion aukera hori har zitekeela, baina kontuan izanda baimenaren azken zati hori hurrengo ikasturtea hasi ostean hartuko zela, edoskitze metatua baliatu nahi bazuen, bere lanpostuak ziurtatuta egon behar zuela bere semeak urtebete bete arte (2022ko otsailaren 26a); hortaz, lanpostu huts bat edo baja luze bat betetzen egon behar zuela.

Irailaren 14an, herritar horrek lanpostu huts bat lortu zuen, erretiro baten ondorioz; beraz, 2021-2022 ikasturterako bere izendapena 2022ko abuztuaren 31ra arte luzatuko da, hau da, umeak urtebete bete eta hilabete batzuk geroago arte.

Ondoren, herritarrak Langileen Zerbitzura jo zuen berriro, adierazi nahi baitzion baimenaren bigarren zatia 2022ko urriaren 10etik 2022ko otsailaren 6ra bitartean hartzeko asmoa zuela eta, jarraian, edoskitze-egun metatuak. Era berean, azken zertzelada horrengatik zenbat egun zegozkion jakinaraz ziezaioten eskatu zuen.

Telefonoz eta posta elektronikoz harremanetan jartzeko hainbat ahalegin egin ostean, egun batzuk geroago posta elektroniko bat jaso zuen eta bertan jakinarazi zioten lanpostu huts bat betetzen ari bazen ere, ezin ziotela edoskitze metatuko baimenik eman, irailaren 1ean izendatu ez zutelako, baldintza hori bete beharrekoa baitzen.

Gainera, kexarekin batera emandako agirietan egiaztatu genuenez, herritar horrek adierazi zuenean, harreman-bide bera erabiliz, informazio berri hura ez zetorrela bat hezkuntza-administrazio horrexek lehen eman zionarekin eta hasierako informazio huraxe izan zuela kontuan bere eskubidea baliatzeko, araudia ikasturte honetan aldatu dela erantzun zioten.

Hala ere, oro har, sektore horretan ezarri behar den araudiak bi aukera ematen dizkie edoskitze-baimena baliatzeko eskubidea dutenei: bata, lanean egunean ordubeteko etenaldia egitea edo ordubetez lanik ez egitea umeak urtebete bete arte; eta, bestea, aurreko formula hori aukeratuz gero legozkiokeen orduak metatuz lortzen diren lanaldi osoetan lanik ez egitea.

Horregatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zion utz ziezaiola herritar horri edoskitze-baimena baliatzeko modalitate desberdinen artean aukeratzen.

ARARTEKOAK AMAITU DU JARDUERA BAT, OSAKIDETZAK ALDATU EGIN BAITITU DIABETESA KONTROLATZEKO GAILU BAT FINANTZATZEKO IRIZPIDEAK

Arartekoak izapidetzeko onartu zuen 81 urteko emakume baten kexa. Kexagileak 2 motako diabetesa du eta, duela urte batzuk geroztik, egunean gutxienez 3 aldiz intsulina injektatu behar du eta bere glukosa maila kontrolatu behar du, izan ere, bat bateko igoera eta jaitsierengatik, beharrezkoa izan daiteke elikagaiak hartzea, azukre mailak orekatzeko.

Hainbeste ziztaden ondorioz, hatzetan ia ez dauka sentiberatasunik, eta horrek eragina dauka egunero egiten dituen gainontzeko jardueretan, besteak beste, desgaitasun larria duen 91 urteko senarra zaintzea.

Egoera horren aurrean, flash izeneko monitorizazio-sistema bat erostea erabaki zuen. Sistema hori egokia da likido interstizialeko glukosa mailak neurtzeko, eta, horrela, ziztadak saihesten ditu. Gailu horrek 60 euro inguru gastarazten zion 14 egunean behin, eta gastu hori handiegia zen berarentzat, hilero 600 euroko pentsioa jasotzen duela kontuan hartuta.

Kexagileak bazekien Osakidetzak finantzatzen diela gailu hori 1 motako diabetes mellitusa duten paziente gazteei, nahiz eta orratzez egiten diren ohiko probek hatzetan antzeko lesioak eragiten dituzten kasu batean zein bestean. Gurutzetako ospitalean erreklamatu ondoren, Osakidetzak erantzun zion ez zuela aurreikusten sentsorea finantzatzea, ez adinaren irizpidearengatik, baizik eta diabetes motagatik.

2019an Osasun Sailak berak iragarri zuen Eusko Jaurlaritzaren webgunean gailu hori bere zerbitzuzorroan sartu zuela, eta hori *“hobekuntza garrantzitsua zela diabetesa duten pertsonen bizi-kalitatean”.*

Beraz, Arartekoak Osasun Sailari adierazi zionez, arrazoizkoa dirudi esatea paziente horien bizi-kalitatearen hobekuntzak pazienteen diabetes motarekin baino lotura handiagoa duela ziztada ugari eragiten dituen metodo bat baztertu ahal izatearekin.

Osakidetzak jakinarazi digu aldatu egin direla finantzatzeko irizpideak, paziente horrek orain betetzen dituela irizpide horiek eta berarekin harremanetan jarri direla bere anbulatorioan sentsore horiek jaso ditzan.

ARARTEKOAK ESKU HARTU ONDOREN, OSAKIDETZAK BERE JARDUERA ZUZENDU DU ETA HERRITAR BATI BERE ALABAREN HISTORIA KLINIKOA ESKURATZEN UTZI DIO

Herritar batek Arartekora jo zuen, Osakidetzak bere alabaren osasun-datuak eskuratzea ukatu baitzion, dibortzio-egoera zibilean zegoelako.

Arartekoak Osakidetzari eskatu zion azaldu zezala zergatik ukatu zion informazio hura, izan ere, dibortzio-epaiak, bi gurasoak ados jarrita, modu partekatuan arautzen zuen alaben zaintza eta jagoletza araubidea.

Bere erantzunean, Osakidetzak onartu du osasun-zentroko langileek hanka sartu zutela herritar horrek guraso-ahalaren pean zegoen adingabearen historia klinikoa eskuratzeko eskubidea betetzeko orduan.

Gainera, zehaztu du jarraibide zehatzak eman dituela kexagileari jakinaraz diezaioten zer izapide egin behar dituen bere alabaren osasun-datuak jakiteko, haren ordezkari gisa.

Beraz, Arartekoak bukatu du bere esku-hartzea kasu horretan, uste baitu beharrezko neurriak hartu direla azaldutako arazoa konpontzeko, gomendiorik bidali behar izan gabe.

EUSKO JAURLARITZAK, ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURETAN, ERROLDATZEKO BALDINTZA KENDUKO DU MUGIKORTASUNA MODU IRAUNKORREAN MURRIZTUTA DUTEN PERTSONENTZAT

Horixe jakinarazi dio Arartekoari, honek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari adierazi ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza egokituak esleitzeko prozeduretan kolektibo horren parte-hartzea bermatu behar dela, horiek sustapena egiten den udalerrian erroldatuta egon ala ez egon.

Herritar baten kexa izapidetzeko onartu eta gero hasi zen jarduten Arartekoa. Herritarrak eskaera bat egin zuen Getxon gizarte-babeseko etxebizitzak errentamendu-araubidean esleitzeko prozedura batean parte hartzeko, baina Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariak eskaera ez onartzea erabaki zuen eta kexagilea ez zegoen ados erabaki harekin.

Kexagilearen bizikidetza-unitatea hiru kidek osatzen dute. Haietako batek, bere semeak hain zuzen, gurpil-aulkia erabili behar du, gaixotasun degeneratiboa dauka eta mendekotasun larria eta %86ko desgaitasuna dauzka onartuta. Egoera horretan, beraiek bizi diren merkatu libreko etxebizitza ez da egokia.

Bere semearen beharretara egokitutako etxebizitza bat behar zuenez gero, Getxon 91 etxebizitza esleitzeko hasi zen prozeduran parte hartzeko eskaera egin zuen, izan ere, han 4 etxebizitza egokitu gorde zituzten mugikortasuna modu iraunkorrean murrizten duen desgaitasuna dutenei esleitzeko.

Egoera hori kontuan hartuta, Arartekoak sail horri gomendatu zion berriz hausnar zezala Bizkaiko Etxebizitzako lurralde ordezkariaren erabakia. Sail horrek osorik onartu ditu gomendioan egindako gogoetak, baina, bere esanean, erabaki hori berraztertzeak ere egoera bidegabeak sortuko lituzke, sustapen horretako etxebizitza egokituen esleipendun batzuek eta itxarote-zerrendan dauden beste zenbaitek erroldatzeko baldintza betetzen dutelako.

Kexagilearen kasu zehatza berraztertu ez bada ere, Arartekoak ontzat jo du sail horrek hartu duen erabakia, alegia, aurrerantzean, erroldatzeko baldintza kentzea mugikortasuna modu iraunkorrean murriztuta duten pertsonentzat eta genero-indarkeriaren biktimentzat, babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan.

ARARTEKOAK ONDARROAKO UDALARI ESKATU DIO BERARIAZ EBATZ DEZALA HERRITAR BATEK DUELA LAU URTE EGIN ZUEN ESKAERA

Herritar batek Arartekora jo zuen, izan ere, 2018ko abenduan, Ondarroako Udalari eskatu zion berrazter zitzala ondasun higiezinen gaineko zerga (OHZ) gisa azken lau urteetan bidali zizkion ordainagiriak, baina ez zuen erantzunik jaso.

Herritar horrek etxebizitza bat dauka, Alokabideri lagata, alokairu babestu baten bidez merkaturatzeko. Kexan adierazi zuenez, sozietate publiko horrekin sinaturiko gozamen-kontratua berritzean, Alokabidek jakinarazi zion %50erainoko murrizketa izan zezakeela OHZn ordaindu beharreko kuotan.

Bere eskaerari buruzko erantzunik jasotzen ez zuenez gero, berriro formalki egin zuen eskaera, baina udalak oraindik ez du horretaz ezer adierazi.

ARARTEKOAREN IRIZPIDEAK AINTZAT HARTUTA, HABEK EGOKITU EGIN DITU AZTERKETA-DEIALDIKO BALDINTZAK, GOI MAILAKO KIROLARIEK AZTERKETA-EGUNA ALDATU AHAL IZAN DEZATEN EGUN BEREAN LEHIAKETA BALDIN BADAUKATE

Pertsona batek Arartekora jo zuen, HABEk ez baitzuen onartu bere eskaera, C1 mailako hizkuntza egiaztatzeko ahozko proba librea 2021eko deialdian ezarrita zegoen ezohiko datan egiteko.

Adierazi zuenez, errendimendu handiko bi kirolari 2021eko apirilean matrikulatu ziren, horretarako finkatutako epean, C1 maila egiaztatzeko probetan parte hartzeko HABEren deialdi irekian, eta zegokion prezio publikoa ordaindu zuten.

Hainbat lehiaketatako prozesua amaitu ondoren, junior eta 23 urtez azpikoen munduko txapelketara joateko hautatu zituzten. Txapelketa hura Eslovenian egin zen, uztailaren 6tik 11ra bitartean.

Bi kirolariek gainditu zituzten idatzizko ulermenari eta adierazpenari zegozkion probak, eta ahozko ulermen eta adierazpenezko probak egin behar zituzten. HABEk azterketa horietarako argitaratu zuen egutegia eta munduko txapelketako egunak batera gertatuko ziren; horregatik, deialdiko oinarrietan adierazitako epean eta moduan, azterketa-eguna aldatzeko eskaera egin zuten, uztailaren 16rako aurreikusita zegoen ezohiko deialdian egin ahal izateko, edo, bestela, azterketa iragarritako egunean eta orduan egiteko, baina bitarteko telematikoen bidez. Eskaerarekin batera, Piraguismoko Espainiako Federazioko junior eta 23 urtez azpiko entrenatzaile nazionalaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu zuten.

Kexagilearen ustez, alegatutako arrazoia gerora ustekabean sortua eta ezinbestekoa da, matrikula egiteko unean ez baitzekiten txapelketa hartan talde nazionala ordezkatzeko aukeratuak izango zirela. Gainera, pandemiaren ondorioz kirol munduan bizi zen ezohiko egoera zela eta, orduan ez zegoen baieztatuta txapelketa hura egin ahal izango zutenik.

Deialdia egiteko HABEren ebazpenean ezarrita dagoenez, "…*proba egitea galarazten dion arrazoiak ustekabekoa eta ezinbestekoa beharko du izan".* Arrazoi horretan oinarrituta, ukatu egin zitzaien eskaera, alegatutako arrazoiek baldintza horiek betetzen ez zituztelakoan.

Arartekoak ezinbesteko arrazoiei buruzko iritzia eman izan du, data bakarreko azterketaren bitartez eta norgehiagokaren bidez lanpostu publiko batean sartzeko probak egiteari dagokionez. Han adierazitako argudioak kasu honi aplika dakizkioke, nahiz eta gai honetan norgehiagokarik ez egon parte-hartzaileen arteko berdintasun-baldintzak hautsi ahal izateari dagokionez.

Arartekoaren ebazpenean, Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiaren epai bat aipatzen da. Epai horren arabera, "ezinbesteko" kontzeptua ez da ulertu behar zentzu teknikoan (zentzu hertsian), baizik eta nahi gabeko eragozpen gisa (hautagaiarekin zerikusirik ez duena eta probara joatea galarazten diona).

HABEri gogoeta horiek helarazi eta gai horri buruzko informazioa eskatu ostean, erakunde horrek Arartekoari jakinarazi zion hemendik aurrera kontuan izango dituela ebazpen horretan jasotako argudioak. Gainera, aldatu egin zuen 2022ko deialdia, goi mailako kirolariek azterketak ezohiko data batean egin ahal izan dezaten, azterketa-egunean bertan nazioarteko lehiaketak dituztela egiaztatze hutsarekin.

ARARTEKOAK DURANGOKO UDALARI GOMENDATU DIO JARDUERA-LIZENTZIAN EZARRITAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK BETETZEN DITUELA ZIURTA DEZAN ESKA DIEZAIOLA TABERNA BATEN SUSTATZAILEARI

Herritar batek Arartekoari salatu zion zenbait salaketa egin zizkiola Durangoko Udalari, bere bizilekuaren inguruetan kokaturiko ostalaritza establezimendu baten irregulartasunengatik, baina udalak ez zuela jardun. Kexagileak dioenez, bere etxebizitzan eragozpen larriak jasaten ditu zarata eta dardarengatik, establezimendu horretan musika oso ozen jartzen delako eta ixteko ordutegia behin eta berriz betetzen ez delako, baina ez da zarata-dardara horien ingurumen kontrolik egiten.

2021ko urrian, lokal horrek isolamendu-maila nahikorik ez zeukala eta etengabe ateak zabalik egoten zirela salatu zuen. Egoera hura osasun-kalte larriak sortzen ari omen zitzaion.

Arartekoak informazioa eskatu zion Durangoko Udalari, establezimendu horren funtzionamenduarekin lotutako eragozpenak konpontzeko zer kontrol-jarduera egin zituen jakiteko.

Udalak erantzun zuen jarduera-lizentzia bat eman zela 2007ko ekainean, eta han hainbat neurri betetzeko betebeharra ezarri zela.

Beharrezko lizentziak emateaz gain, udalak neurri zuzentzaileak betetzen direla zaindu ere egin behar du balizko jarduera gogaikarria garatzen den bitartean, sortutako zarata ikuskatzeari eta gainontzeko ingurumen-eskakizunei dagokienez.

Horregatik, Arartekoak Durangoko Udalari gomendatu zion jarduera hori legezta zezala eskatzeko establezimenduaren sustatzaileari. Era berean, gogorarazi zion indarreko araudia betetzen ez duelako legeztatzerik ez balego, lokala behin betiko itxi beharko lukeela.

ARARTEKOAK LAGUNTZA ESKATU DIO BILBOKO UDALARI APARKATZEKO ORDUTEGI TXARTELAREN TARIFA OROKORRA ALDATZEKO, IZAN ERE, EGUNGO KONFIGURAZIOAK GAITASUN EKONOMIKOAREN ETA BERDINTASUN PRINTZIPIOAK URRATZEN DITU

Herritar batek Arartekoan aurkeztutako kexa baten bidez zalantzan jarri zuen, berdintasun eskubidearen ikuspegitik, Bilboko Udalak TAO gunean aparkatzean lehenengo hamabost minutuetan ematen ari den tratamendu desberdintasuna, baimena parkimetroen bidez edo Bilbao Park App aplikazioaren bidez eskuratzearen arabera.

Adierazi zuenez, txartela parkimetroetan ateraz gero, ibilgailua aparkatzeko 0,10 euro ordaindu behar ziren; aldiz, Bilbao Park App aplikazioaren bidez, baimena doakoa zen.

Arartekoak Udalari eskatu zion argitzeko zergatik eman zien bere ordenantza fiskalak tratamendu desberdina bi egoera horiei.

Mugikortasun eta Jasangarritasun Arloak hurrengoa besterik ez zuen erantzun: *“neurri horren bidez aplikazioa gehiago erabiltzea sustatu nahi da, pixkanaka parkimetroak ordezkatze aldera, irisgarritasun politikei dagokienez aurrera egiteko”.*

Bilboko Udalak neurri hori justifikatzeko adierazi du TAO txartelaren aplikazioa gehiago erabiltzea bultzatu nahi dela pixkanaka bide publikoetako parkimetroak kentzen joateko, hiriko sarbidea errazteko.

Kontuan izan behar da Administrazioaren zein gizartearen beraren digitalizazioak esponentzialki aurrera egiten duen arren, administrazio publikoei ere oztopoak kentzea dagokiela, inor prozesutik kanpo geratu ez dadin.

ARARTEKOAREN GOMENDIOARI JARRAIKI, BARAKALDOKO UDALAK ALDATU EGINGO DU GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK ESKATZEKO INPRIMAKIA

Elkarte bat Arartekoarekin harremanetan jarri zen, Barakaldoko gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) eskaerak izapidetzean izandako hainbat irregularta-sun salatzeko. Besteak beste, laguntzak eskatzeko erabiltzen den inprimakia, izan ere, bertan, GLLen es-katzaileei eskatzen zaie aukera dezatela beren artean bateraezinak diren zenbait gastu-kontzepturen artean.

Arartekoak laguntza eskatu zion Barakaldoko Udala-ri, eta hark informazio zehatza eman zuen prozedurari zegozkion gai batzuez, baita GLLak emateko irizpide, epe eta izapideei buruz ere. Laguntzak eskatzeko in-primakia dela eta, esan zuen erabilgarria zela laguntza horiek emateko aukerak argi azaltzeko.

Kexa-espediente hau izapidetzeari esker ezagutu ahal izan dugu Barakaldoko Udalak zer prozedura erabiltzen duen GLLak emateko, eta eskaera kopu-ru handi bat jasotzean, zer ahalegin egiten duen es-kaera horiek objektiboki kudeatzeko.

Arartekoak, Barakaldoko Udalari igorri zion ebazpen batean, adierazi zuen oso garrantzitsuak zirela pro-zeduraren oinarrizko bermeak, eta udalak horiekiko konpromisoa agertu zuen. Ebazpen horretan egin-dako gogoetak aintzat hartuta, gomendatu zion alda zezala GLLak eskatzeko inprimakia, eta, beraz, ken zezala *"1. eta 2. blokeetako kontzeptuak bateraezi-nak dira beren artean"* dioen esaldia.

Udalak onartu egin du gomendioa, eta jakinarazi du laguntzak eskatzeko inprimakia aldatuko duela, aipaturiko esaldia kendu eta honako hau jarriz *"1. blokea emateak 2. blokean gehieneko mugak apli-katzea dakar"*. Inprimakia egoitza elektronikoan ere aldatuko da.

ARARTEKOAK ESKATU DU BERRIKUS DADILA ETXEBIZITZA ALDATZEKO ESKAERA BAT UKATZEKO ERABAKIA, USTE BAITU ETXEBIZITZA HORI EZ DELA EGOKIA BIZIKIDETZA-UNITATEAREN (EMAKUME BAT ETA BERE SEME ADINGABEA) BERARIAZKO BEHARRAK ASETZEKO

Kexagileak guraso bakarreko bizikidetza-unitatea osatzen du eta hamar urteko umea du bere kargu-ra. Alokabidek etxebizitza esleitu zion 2019an, eta onartu egin zuen, bere egoera ekonomikoa ez ze-lako batere ona eta merkatu libreko alokairuak ga-restiak zirelako. Hala ere, etxebizitzak logela bakarra dauka eta horrek zaildu egiten du semeak bere nor-tasuna garatzea, nabarmen mugatzen baitu haren pribatutasuna. Horregatik, egongela-sukalde-jange-lako ohe-sofan lo egin behar izaten du.

Intimitate faltagatik semearekin bizitzeak okerre-ra egin zuenez gero, etxebizitza izateko berariazko premia onar ziezaioten eskatu zuen. Horretarako, Alokabidek emandako formularioan agertzen ziren arrazoien artean, "*Behar bezala egiaztatutako bera-riazko beharrak*" zioen aukera markatu zuen, eta fa-miliako medikuaren txosten bat aurkeztu zuen, non bere egoera animikoaren berri eman baitzen.

Alokabidek ez zuen onartu eskaera, bere ustez medikuaren txostena ez zelako erabakigarria eta egoera ez zelako neurriz gain kezkatzeko modu-koa. Era berean, ohartarazi zion ez zuela aztertu-ko arrazoi beragatik egindako birkokatze-eskae-rarik bi urteko epean.

Arartekoaren iritziz, etxebizitzak logela bakarra iza-teak eta herritarrak ohe-sofan lo egin behar izateak behar bezala justifikatzen du, legearen arabera, etxebizitza aldatzeko berariazko premia onartzeko eskaera.

ARARTEKOAK SESTAOKO UDALARI GOMENDATU DIO OFIZIOZ EZEZTA DEZALA IBILGAILU BAT BIDETIK KENTZEAGATIK TASA GISA BIDALITAKO LIKIDAZIO BAT

Herritar batek Arartekora jo zuen, Sestaoko Udaletxeko Erregistro nagusian idazki bat aurkeztu eta erantzunik jaso ez zuela ikusi ondoren. Agiri hartan adierazi zuen ez zegoela ados udaltzain batek bere ibilgailuaren kontra jarritako salaketa batekin, ezta arrazoi horrengatik garabiak ibilgailua bidetik kentzearekin ere. Kexagileak esku-frenoa erabat ez ziurtatzeagatik eta ibilgailua mugitu eta beste bat jotzeagatik jarri zioten salaketa.

Gainera, kexagileak udal gordailuan ibilgailua berreskuratzeagatik ordaindu behar izan zuen kopurua (141 euro) itzultzeko eskatu zuen.

Adierazi zuenez, ibilgailua jasotzera joan zenean, hura bultzatzea erabaki zuen, esku-frenoa jarrita zeukan ikusteko, eta konturatu zen autoa ezin zela mugitu. Toki hartan zegoen udaltzain bati deitu zion, eta hark egiaztatu zuen frenoa jarrita zegoela.

Arartekoak informazioa eskatu zion Sestaoko Udalari. Igorritako txostenaren arabera, ez zen zehapen-prozedurarik hasi eta ez zen isunik ipini. Tasa hori kobratu zela bakarrik jakinarazten zen.

Horregatik, Arartekoak Sestaoko Udalari gomendatu zion ofizioz ezezta zezala ibilgailua bidetik kentzeagatik tasa gisa bidalitako likidazioa, eta kaltetuari itzul ziezaiola bidegabeki kobratutako kopurua.

ARARTEKOAK ESKU HARTU ONDOREN, BILBOKO UDALAK BALIOGABETU EGIN DU MOTOZIKLETA BATEN EMISIOAK IKUSKATZEKO ARAUDIA URRATZEAGATIK EZARRITAKO ISUN BAT

Bilbon barrena zebilela, udal ikuskatzaile bat ohartu zen herritar baten motozikletak, agian, baimendutako mugetatik gorako zarata-mailak sortzen zituela.

Bilboko Udalak herritar horri eskatu zion 15 eguneko epean ibilgailuak kontrolatzeko udalaren zentro batera joan zedila, motozikleta hura zarata-emisioei dagokienez indarreko araudiarekin bat zetorren egiaztatzeko. Epe hartan joan ez zenez gero, udalak zigortzeko espedientea hasi zuen.

Jakinarazten ahalegindu eta gero, ebazpena EHAAn argitaratu zen eta interesdunak ez zuen alegaziorik egin. Udalak 300 euroko isuna jarriz ebatzi zuen espedientea.

Kexagileak dioenez, ez zuen zigortzeko prozeduraren berri jakin zigor-ebazpena bere bizilekuan jakinarazi zioten arte. Behin egintzak ezagututa, motozikletaren azterketa egin zuen eta egiaztatu zen ez zuela sortzen araudian ezarritako mugaz gaindiko zaratarik.

Arartekoak zigortzeko espedientearen gaineko informazioa galdegin zion Bilboko Udalari. Erakunde honek adierazi zion Ingurumena Babesteko Udal Ordenantzaren arabera, araudia urratzen bada, lehen errekerimendu bat egin behar dela, titularrak bere ibilgailua kontrol-zentro batera eraman dezan, azterketa egiteko eta emisioak egiaztatzeko. Azterketa interesdunaren kontrakoa bada edo “ibilgailua eramaten ez bada”, ordenantzak bigarren epe bat ezartzen du hura eramateko, eta azken kasu horretan ohartarazten da isuna jarriko dela.

Bilboko Udalak txosten bat bidali zuen, isuna baliogabetu zuela jakinarazteko. Era berean, erabili beharreko prozeduraz Arartekoak aldez aurretik egindako gogoetak baieztatu zituen.

ARARTEKOAK ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEARI GOMENDATU DIO EZEZTA DEZALA IBILGAILUEN 2021 RENOVE PLANAREN BARRUAN IBILGAILU BAT EROSTEKO LAGUNTZA-ESKAERA BAT UKATZEKO ERABAKIA

Herritar batek kexa egin zion Arartekoari, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) Ibilgailuen 2021 Renove Plana (PAVEA) programaren barruan ibilgailu bat erosteko eskatu zuen laguntza ukatu ziotelako.

EEEk ez zuen onartu laguntza, izan ere, bere ustez, bidalitako agirietan ez zetozen bat laguntza-eskatzailea eta baja emandako ibilgailuaren titularra.

Kexagileak errekurtso bat jarri zuen, eta ukapen hura berriz azter zedin eskatu. Alegatu zuenez, EEEk Trafiko Zuzendaritza Nagusitik (DGT) lortutako agiria osatu gabe zegoelako ez zetozen bat datuak. Egia zen baja emandako ibilgailuaren titularra DGTren agirian agertzen zena beste pertsona bat zela, baina ibilgailuaren jabetza biek partekatzen zutelako gertatu zen hori.

Errekurtsoa izapidetzean, EEEk kexagileari eskatu zion 10 eguneko epean DGTren ziurtagiri bat aurkez zezala, ibilgailuaren titularkidetasuna bermatzen zuena.

Kexagileak 10 eguneko epe horretatik kanpo eman zuen ziurtagiri hura. EEEri jakinarazi zion DGTren aurrez aurreko hitzorduen kudeaketak eragin zuela atzerapena.

Hala ere, EEEk errekurtsoa ebatzi zuen eta berriro adierazi zuen ezetsi egin zuela, titulartasunari buruzko baldintza egiaztatu ez zelako.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ibilgailu eraginkor eta alternatiboetan inbertitzeko 2021eko laguntza-programarako onartutako deialdiko oinarrietan zehazten denez, EEEk berak automatikoki egiaztatu beharko ditu zenbait agiri, hala nola eskatzailearen NANa, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, errolda-ziurtagiria eta *“txatar bihurtutako ibilgailuaren eta erositako ibilgailuaren zirkulazio-baimenak.”*

Xedapen horren bitartez, oinarrietan jasotzen da interesdunek eskubidea dutela administrazio publikoen esku dauden agiriak aurkeztu beharrik ez izateko.

Hala ere, DGTk EEEri emandako informazioan, txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren zirkulazio-baimenean, eskatzailea ez zen berariaz ibilgailuaren titular gisa agertzen.

Arartekoak uste du EEEk onartu egin behar zuela laguntzaren eskatzaileak, bere datuekin bidalitako baja-ziurtagiriaren bidez, baja emandako ibilgailuaren titulartasuna egiaztatu izana, edo, bestela, ofizioz eskatu behar ziola DGTri dokumentazio osagarria, datuak bat zetozen ziurtatzeko.

Horregatik, Energiaren Euskal Erakundeari gomendatu dio ezezta dezala Ibilgailuen 2021 Renove Planaren barruan ibilgailu bat erosteko laguntza-eskaera bat ukatzeko erabakia.

BIZKAIKO ALDUNDIAK ONARTU EGIN DITU ARARTEKOAREN BI GOMENDIO, ADMINISTRAZIO-PROZEDURAKO OINARRIZKO BETEKIZUNAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ BETE DAITEZEN

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak aldaketa juridikoak eta teknikoak egitea onartu du bidesaria duten bide-azpiegituren erabiltzaileentzako dirulaguntzak izapidetzean

Espedienteetako batean, Aldundiak dirulaguntza-eskaerak egiteko eskaintzen zituen bitarteko elektronikoak zirela eta. Horren ondoren, Arartekoak foru erakundeari gomendatu zion bere egoitza elektronikoan Bidesaria plataforma sar zezala, interesdunek segurtasun juridikoko bermeak eta berme teknikoak izan ditzaten dirulaguntzak emateko harremanen esparruan. Orobat, eskatu zion bitarteko tekniko eta juridikoak jar zitzala, behar bezala gaitutako funtzionarioak barne, administrazio-tramitazioa bultzatzeko eta herritarrentzako laguntza bermatzeko, herritarrak administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izan ditzaten, araudian xedatutakoaren arabera.

Beste kasuan, herritar batek Arartekoari adierazi zion ez zegoela ados 2022ko apirilera arte jaso zuen dirulaguntza etetearekin, izan ere, administrazioaren ustez, ez zituen betetzen dirulaguntza jasotzen jarraitzeko baldintzak. Interbiak sozietate publikoak, dirulaguntzak kudeatzeaz arduratzen zenez, herritarrari eskatu zion (Bidesaria dirulaguntzak kudeatzeko sistema elektronikoaren eta posta elektronikoaren bitartez) gida-baimena aurkez zezala, baimenak indarraldia gal baitzezakeen. Aurrez 2022ko urtarrilean emandako dirulaguntza eten egin zen hainbat hilabetetan, herritarrak eskatutako agiria azkenean Bidesarian sartu zuen arte.

Kexa aztertu eta gero, Arartekoak Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari gomendatu zion foru erakundearen egoitza elektronikoaren bitartez izapidetu zezala dirulaguntzak emateko administrazio-prozedura, betekizunak zuzentzeko jakinarazpenak behar bezala egin zitezen, prozeduraren hasieran edo beste edozein fasetan. Horrela, interesdunari aukera emango litzaioke egoitza elektronikoan sartzeko, administrazioak agindutako ekintzaren berri izateko eta, horrela, bere eskubideak eta bidezko interesak epe barruan eta ezarritako moduan defendatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak Arartekoari jakinarazi dio onartu egin dituela bi gomendio horiek.

ARARTEKOAREN GOMENDIO BATI JARRAIKI, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ELEKTRONIKOAK EZ DIREN BITARTEKOAK JARRIKO DITU BIDEGIREN BITARTEZ BIDE-AZPIEGITURAK ERABILTZEAGATIKO KANONA KUDEATZEKO ETA BILTZEKO

Herritar batek kexa egin zuen, ez baitzegoen ados Bidegiren jarduerarekin. Bidegik (Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari atxikitako sozietatea) ez zuen lotu kexagilearen ibilgailua banku-txartelarekin Beasaingo autobiako erabiltzaile gisa, posta elektronikorik ez zeukalako.

Bidegiri eman zaio bide azpiegiturak erabiltzeagatiko kanona ordainarazteko, kudeatzeko eta biltzeko eginkizuna eta, zehazki, Beasain eta Bergara arteko bide-zatikoa.

Kanon hori kudeatu eta biltzeko, web orri bat prestatu zuen. Bertan, autobiaren erabiltzaileek beren datuak sartu behar dituzte, ibilgailu-matrikula bat banku-txartel batekin lotu ahal izateko. Web horri horrek “posta elektronikoa” datua ematera behartzen du sisteman baliozkotzat jotzeko eta, horrela, matrikula banku-txartelarekin lotu ahal izateko.

Arartekoak administrazio digitala eta herritarrekiko harremanei buruzko azterlan bat argitaratu zuen. Azterlan horretan azaltzen du, besteak beste, eten digitalak zer neurritan eragiten dien talde edo pertsona jakin batzuei beraien eskubideak baliatzeko orduan, eta benetan nola gauzatzen diren harreman digitalak herritarren eta administrazioaren artean.

Horregatik, Foru Aldundiari gomendatu zion ezar ditzala gobernu onari buruzko printzipioak, Gobernu Onaren gaineko Foru Arauan bertan eta herritarrak artatzeko foru-sisteman araututakoak. Horretarako, bitartekoak jar ditzala, herritarrek aukeratu ahal izan dezaten zer bide erabili nahi duten murrizketarik edo bereizkeriarik gabe foru-sektore publikoarekin harremanak izateko.



ARARTEKOAK EGIAZTATU DU BETE DELA KALEAN BIZI DIREN PERTSONAK ARTATZEARI BURUZ EGIN ZUEN GOMENDIO OROKORRA

Arartekoak bat egin du Europako eta nazioarteko erakundeen proposamenekin etxegabetasunaren kontra borrokatzeko, eta garrantzitsutzat jo du euskal gizarte-babeserako sistema eta etxegabeen beharrei eraginkortasunez erantzuteko dauden tresna juridikoak eta antolaketazkoak

2022an, Arartekoak bukatu zuen gomendio honen bilakaera aztertzeko lana: Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 5ekoa. *Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez.*

Bertan aztertu dira esparru eta testuinguru soziala, dauden diagnostikoak eta ebaluazioak, eta laguntza eskatu zitzaien administrazio publikoek abiarazi dituzten jarduerak.

2019ko erdialdetik egiaztatu dugu gure hirietako kaleetan ugaritu egin direla etxerik ez duten emakumeak eta gizonak, eta ugaritze hori Arartekoari egindako kexetan eta kontsultetan ere islatu da. Kexa batzuk emakumeei zegozkien eta emakume gehienak 50 urtetik gorakoak ziren; hori kezka handitzeko faktore bat izan da.

Honatx kexatzeko arrazoiak: egoitzetan ez dagoela plaza nahikorik, ez daudela erabiltzaileen behar berezietara egokituta (sexua, adina, osasun mentala, segurtasuna, e.a. kontuan hartuta), gabeziak daudela esku-hartze sozialean, estali gabe daudela osasun-beharrak eta oinarrizko beste premia batzuk (higienea edo elikadura), eta abar.

Jasotako erantzunak aztertzean, ikusi ahal izan da euskal administrazio publikoek konfinamenduan etxegabeak artatzen esku hartu zutela eta orduan hasitako gizarteratze-prozesuei eta abiarazi ziren programei jarraipena emateko ahaleginak egin dituztela.

ERAKUNDE-ADIERAZPENAK

Erakunde-adierazpenen bidez, Arartekoa jendaurrean agertu izan da zenbait efemerideren ospakizuna dela- eta euskal gizarteari mezu bat helarazteko interesgarriak diren zenbait gairen inguruan hitz egiten. Jarraian, 2021ean zehar egindako erakunde-adierazpen nagusien laburpen bat jaso dugu.

EKAINAK 15
Zahartzaroko Abusu eta Tratu Txarrez Kontzientziatzeko Munduko Eguna

Bidezkoa da adinekoei itzultzea beraiek gizarteari eman ziotena

Adinak eta zahartzeak kalteberatasun handiagoa ekar dezakete, eta arreta berezia eta erantzun publiko egokiak merezi dituzte. Egia esan, gero eta arreta handiagoa eskaintzen zaio tratu txarrak prebenitu eta antzemateari, bereziki tratu txar psikologikoa bada, hori baita antzematen zailena. Hala ere, ildo horretan, erantzun publikoak areagotu behar dira osasunaren eta gizarte-zerbitzuen eremutik. Orobat, gizarteari ohartarazi behar zaio horrelako egoerak onartezinak direla, susmorik baldin badute, alarmak aktiba daitezen.

NBEk aldarrikatu duen Zahartzaroko Abusu eta Tratu Txarrez Kontzientziatzeko Munduko Egun honetan, Arartekoak nabarmendu nahi du errealitate honek oraindik esku-hartze anitz behar dituela: gizartea sentikorrago bihurtu, profesionalak trebatu, pertsonak beraien eskubideez kontzientziatu, prebenitu eta, batez ere, sakon hausnartu gizartean nola antolatzen ditugun zainketak, hain zuzen, beroriek gehien behar dituzten pertsonenak.



EKAINAK 20
Errefuxiatuen Munduko Eguna

Gero eta pertsona gehiago daude ihes egitera behartuta, gatazketatik edo jazarpenetatik bizirik ateratzen saiatzeko, itxuraz amaierarik ez duen espiralean

Orain Europan bizi den egoerak argi erakusten du gerra izugarri garratza dela, erabat zentzugabea, baina, aldi berean, herrien artean mendekotasuna dagoela eta gizon-emakumeen elkartasuna premiazkoa eta beharrezkoa dela.

Hala ere, pertsona ahul eta etsi horiek babestea politika publikoen erdigunetik oso urrun dago, nahiz eta arlo horretan indarrean egon oinarrizko eskubideak babesteari eta zuzenbide humanitarioari buruzko nazioarteko hainbat tresna.

Gure hiri eta herriek beraien jaioterriak utzi behar izan dituzten milioika pertsona hartzen dituzte; herrialde haietan zituzten beren erroak, harremanak, etxebizitzak. Erabaki eta interes politiko-ekonomikoen edo geoestrategikoen biktimak dira, eta errotik moztu zaizkie beren jaioterrietan bizitzeko, garatzeko, trebatzeko, seme-alabak hazteko eta bizimodu duina izateko aukerak. Eska daitekeen gutxienekoa da gure artean laguntza bilatzen dutenean, guztiz errespeta dadila gaizki tratatutako beren duintasuna eta berma daitezela beren giza eskubideak, jaioterriari, etniari edo administrazio-egoerari begiratu gabe. Gai horiek eztabaida publikoaren eta gure agintarien erabakien erdigunean egon behar dute, jatorria edo jatorri nazionala edozein izanda ere.



URRIAK 10
Osasun Mentalaren Munduko Eguna

Arartekoak nabarmendu nahi du erakunde honek beti arreta berezia eskaini diela buruko gaixotasuna edo nahasmendua (bere aldaera anitzetan) duten pertsonei, oso talde zaurgarria delako

Osasun mentala artatzeko, osasun-administrazioak ahalegin handia egin behar du, baina hori ez da nahikoa. Sistemen arteko koordinazioa ere ezinbestekoa da, batez ere gizarte arloan eta, zehazkiago, eremu soziosanitarioan, funtsezkoa baita arazo horri heltzeko orduan. Sektoreen arteko lankidetza sustatu behar da, batik bat osasun mentalaren gizarteko eta egiturazko alderdi erabakigarriak ulertzeko, eta arriskuak gutxitzeko behar den moduan esku hartzeko.

Alabaina, guztiok konprometitzea ere beharrezkoa da, elkarri konektatutako zerbitzuen sare komunitarioak ezarriz.

Baliabideak dira, botere publikoen konpromisoa da, baina baita ere arazoak, horien zergatiak eta beste zerbaitekin batera sorturiko zergatiak, buruko nahasmenduagatik sufrimendua eragiten duten elementuak, protokolo argiak izatea, ez bakarrik gaitz horiek behar bezala prebenitzeko, baizik eta baita ere gaixoei eta beren senideei laguntza enpatikoa emateko.



URRIAK 17
Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

Arartekoak ohartarazi du gizarte-desberdintasuna areagotu egin dela Euskadin, eta nabarmendu du egiturazko aldaketa sakonak egin behar direla gizarte-desberdintasunak handiagoak izan ez daitezen

Pertsonen duintasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren aldeko konpromiso irmoak, ezinbestez, ekonomia arloko senidetasunari lotuta joan behar du. Baliabide ekonomikoen kontzentrazioa geldiarazteko, politika publikoak behar dira, eta kontzentrazio horri aurka egingo dion esparru juridikoa. Giza eskubideak, ingurumenaren kutsadura edo biztanle, herrialde eta kontinente osoak miserian murgiltzea kontuan hartu gabe, onura ekonomikoa bilatzea dagoeneko ez da jasangarria, ez gizarte mailan ez politika mailan.

Gizartea babesteko euskal sistemari esker, pobrezia larriko egoerak saihestu ahal izan dira Euskadin, eta aurre egin zaio gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuari.

Txirotasuna desagerrarazteko, gizarte-transferentziez gain, beharrezkoak dira bereizkeriaren eta gizarte-desberdintasunaren kontra borrokatzeko neurriak, pertsona guztiek prestakuntza kualifikatua, kalitateko lana edo bizileku seguru eta egokia izateko aukera izan dezaten, alde batera utzita generoa, etnia, nazionalitatea, adina, dibertsitate funtzionala edo osasuna, kalteberatasuneko eta gizarte-bazterketako egoerak sortzen dituzten alderdi erabakigarrien artean.

Ildo horretan, Arartekoak administrazio publikoei eta gizarteari eskatzen die, batez ere gehien daukatenei, senidetasunez eta elkartasunez baldintza batzuk eraiki ditzatela, pobreziaren zirkulua hautsi dadin eta gizarte-berdintasunaren eta duintasunaren bidean aurrera egin dadin.

ABENDUAK 3
Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskarak aniztasuna eta kohesioa ematen die gure gizarteari eta munduari

Aurten 40 urte bete dira Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea indarrean dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara normalizatzeko tresna juridiko handiena. Halaber, Arartekoak denbora honetan guztian euskal herritarren oinarrizko hizkuntza-eskubideak defendatzeko izan duen funtsezko tresna.

Arartekoaren ustez, euskara hizkuntza gutxitu gisa normalizatzeko 40 urteko politiken ondoren, gure erkidegoko edozein herritarrek eskubidea du bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan modu erosoan eta normaltasunez arreta jasotzeko zerbitzu publikoetan, gero eta elebidun eta anitzagoa den gizarte batean.



ARGITALPENAK ETA TXOSTENAK

EUSKADIN OSASUN MENTALARI EMATEN ZAION ARRETA. GAIARI HELTZEKO EREDUA, DAUDEN BALIABIDEAK, ANTZEMANDAKO BEHARRAK ETA SISTEMEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Arartekoak argitara eman ditu Donostian egin zen Uda Ikastaroko ponentziak eta materialak

Osasun mentalari lotutako arazoak prebenitzea lehen mailako gizarte-erronka da, eta ezinbestean berretsi behar dugu oso garrantzitsua dela ahalik eta goizen antzeman eta artatzea, eta lehen mailako arretak zeregin jakin bat duela prozesu horretan.

COVID-19aren pandemiak sortu duen gizarte- eta osasun-egoerak biztanle guztiei eragin die. Alabaina, gizarte-krisi gehienetan gertatu ohi den bezala, bereziki eragiten die fisikoki, psikologikoki eta gizarte mailan ahulenak direnei, are gehiago lan-prekarietate egoeran baldin badaude eta komunitatean edo familian laguntza-sarerik ez badaukate.

Pandemiak estres existentzial handiko egoerak piztu ditu, arreta-eskaerak areagotu ditu eta agerian utzi du eskura dauden sistemek eta baliabideek agian gabeziak dituztela (maila sozialean nahiz indibidualean).

OMEk 2020ko erdialdera egindako inkesta batek argi erakutsi zuen pandemia-aldian nabarmenki eten zirela nahasmendu mental edo neurologikoak eta sustantziak kontsumitzeagatiko kasuak artatzeko zerbitzuak.

Beraz, aurre egin beharreko erronken artean, gizartea sentikorrago bihurtzen eta estigma erauzten lan egin behar da, eta arreta jarri behar da edozein zailtasun edo arazo goiz prebenitzen eta antzematen, larriagotu ez dadin edo edonor bere burua arriskuan jartzera eraman ez dezan.

Ikastaro hau osasun mentala zaintzeko orduan funtsezkoak diren faktoreak detektatzera bideratuta zegoen: batez ere, arriskuei aurrea hartzea, horiek antzeman eta kontrolatzea, zerbitzuetara irispidea izatea, profesionalen arteko harremanak eta koordinazioa, baliabide espezializatuetara bideratzea, baita ere beste eragile batzuekin eta komunitatearekin berarekin hitz egitea.

ARARTEKOAREN UDA IKASTAROKO MINTZALDIAK LABURBILTZEN DITUEN BIDEOA

Gainera, bideo batean laburbildu dira EHUren *XLI. Uda Ikastaro*en barruan Arartekoak Donostiako Miramar jauregian 2022ko uztailean antolatu zuen ikastaroko ponentziak, honako izenburu honekin: *Euskadin osasun mentalari ematen zaion arreta. Gaiari heltzeko eredua, dauden baliabideak, antzemandako beharrak eta sistemen arteko koordinazioa*.

ARARTEKOAK LANBIDERI 2021EAN BIDALITAKO EBAZPENAK BILDU DITU

Agiri horretan bildu dira 2021. urtean Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari egindako gomendio eta iradokizunak, baita horien laburpen bat ere. Orobat, adierazten du zeintzuk onartu diren, zeintzuk dauden erantzunaren zain eta zeintzuk ez diren onartu. Jakina denez, kexa-espediente bat izapidetzean Arartekoaren esku-hartzea eragin zuen arazoa konpontzen ez denean ematen da ebazpena. 2021ean itxi diren kexa-espediente gehienetan, erakunde honek iritzi dio Lanbideren jarduera bideratuta geratu dela.

Gainera, prozedura erraztuaren bitartez amaitu dira 33 kexa-espediente. Prozedura hori erabili ohi da espedienteetako auziari buruz Arartekoak ebazpenak eman arren eta bi erakundeetako langileen arteko bileretan hura eztabaidatu arren, Lanbidek Arartekoaren gogoetak eta jarrera onartzen ez dituenean.

Bilduma horretan aztertzen dira DSBE eta EPO prestazioak ukatu, eten eta amaitzeari buruzko kexak, baita prestazioak erreklamatzeari dagozkionak ere. Horietan, Arartekoaren ustez, Lanbideren jarduerak ez dauka babes nahikorik araudian, edo ez ditu betetzen prozeduraren bermeak. Beste espediente batzuetan, Arartekoa ez dator bat araudia interpretatzeko moduarekin edo elementu jakin batzuei ematen zaien froga-pisuarekin, aldi berean gertatzen diren beste alderdi batzuen aurrean.

HERRITARRENGANDIK HURBILAGO EGONGO DEN ADMINISTRAZIORANTZ AURRERA EGITEKO TRESNAK

Arartekoak argitara eman ditu Donostian 2021an egin zen XL. Uda Ikastaroko ponentziak eta materialak

Argitalpen horretan bildu dira EHUren XL. Uda Ikastaroen barruan Arartekoak Donostiako Carlos Santamaria zentroan 2021eko irailean antolatu zuen ikastaroan aurkeztutako ponentziak.

Administrazio publikoak erabateko zentzua lortzen du herritarrei egiten dien zerbitzuan. Horregatik, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, 3. artikuluan, honako hauek ezartzen ditu beren jardueran bete beharreko printzipioen artean: herritarrei zerbitzu eraginkorra egitea, sinpletasuna, argitasuna eta pertsonekiko hurbiltasuna, edo administrazio publikoen arteko lankidetza, laguntza eta koordinazioa.

Horregatik, ezinbestekoak dira zerbitzu publikora bideratutako kudeaketa, informazio argia eta gardena, bide desberdinen bitartez emana eta pertsonen bereizgarrietara egokitua.

Administrazioaren eta gizartearen beraren digitalizazioa esponentzialki ari da aurrera egiten. Horretarako, berriztatu egin behar dira administrazioak berak eta beraien lan-prozesuak, inor baztertuko ez duen zerbitzu azkarra, eraginkorra eta enpatikoa egiteko eta pertsona batzuen arrakala digitala gainditzeko neurriak hartzeko, izan ere, pertsona horiek, arrazoi ekonomikoak edo gaitasunezkoak direla medio, ezin dituzte bitarteko horiek eskuratu. Horrela, bazterketa digitala eta horren ondorioak saihestuko dira.

Herritarren beharrei erantzun egokia emate aldera, administrazio publikoak hainbat tresna erabili behar ditu modu proaktiboan. Arartekoaren uda ikastaro honen helburua zen horretarako tresna batzuk aztertzea, ahalik eta jarduerarik onenak gauza daitezen.

EMILY O'REILLY EUROPAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEAK HITZALDIA EMAN DU



Emily O'Reilly Europako herriaren defendatzaileak, Euskadira bisitan Manuel Lezertua arartekoak gonbidatuta, honako izenburuko hitzaldia eman zuenu Leioan: "Kontu-ematea, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea: etika publikoko Europako estandarren bila".

Bere hitzaldian, O'Reillyk ustelkeria-egintza txikiak aipatu zituen, ate birakariak enpresa handien eta politikaren artean; testuinguru horretan, pixkanaka gainbeheratuz joan dira Europako balioak eta demokrazia, eta polarizazioa azaleratzea eta demokrazia arriskuan jartzea ahalbidetu du Europan eta AEBetan.

Defentsa-erakundeen zereginari buruz, nabarmendu zuen balio demokratikoak elikatu eta indartzeko konpromisoa dutela.

JARDUNALDIA: OZTOPOAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK ENERGIA-KONTSUMITZAILE AHULEN PARTE-HARTZEA BERMATZEKO EUSKADIKO TOKIKO ENERGIA-KOMUNITATEETAN

Arartekoak jardunaldi hau bultzatzen ZUEN, energia-pobreziaren Europako astean, aztertu nahi baizuen zer mekanismok ahalbidetu behar dieten administrazio publikoei nahiz gizarte-erakundeei energia-pobreziako egoerak hobeto integratzea eta kudeatzea, autokontsumoaren bitartez.

Manuel Lezertua arartekoak jardunaldia hasiera emateko bi hausnarketa egin zituen. Alde batetik, adierazi zuen gure planeta klima-larrialdian dagoenez gero, trantsizio ekologiko eta energetikoa egin behar dela klima-aldaketaren ondoriorik larrienak arintzeko. Bestetik, nabarmendu zuen zerbait egiteko eta trantsizio egokia lortzeko betebehar etikoa daukagula, kolektibo bakar bat ere atzean ez uzteko, ahulenak bereziki, eta energia- eta klima-politiken erdigunean herritarra jartzeko.

Lezertuak energia-pobrezia ere aipatu zuen, etxe askotan bizi duten egoera latza baita, batez ere hotz egiten duen hilabeteetan.

EUSKADIN OSASUN MENTALARI EMATEN ZAION ARRETA

EHUren Uda Ikastaroen XLI. edizioan, Arartekoak izenburu hau duen ikastaroa antolatu zuen Donostiako Miramar jauregian: "Euskadin osasun mentalari ematen zaion arreta. Gaiari heltzeko eredua, dauden baliabideak, antzemandako beharrak eta sistemen arteko koordinazioa".

Inaugurazioan, COVID-19aren pandemiak sortu duen eta biztanleria osoari eragin dion gizarte- eta osasun-egoera aipatu zuen Manuel Lezertua arartekoak.

Lezertuak esan zuenez, *"osasun fisikoko arazoek, isolamenduak, gizarte-harremanik ez izateak, norberaren bizitzarekin bateragarri egiteko zailtasunak, ohitura-aldaketek, laneko arazoek, eta abarrek "ondorioak izan dituzte" biztanleriaren osasun mentalean"*. Eta hauxe erantsi zuen: *"gizarteko krisialdi gehienetan bezalaxe, bereziki eragin die pertsonarik kalteberenei, bai fisikoki, bai psikologikoki eta gizarte mailan"*.

Aurre egin beharreko erronken artean, gizartea sentikorrago bihurtzen eta estigma erauzten lan egin behar da, eta arreta jarri behar da edozein zailtasun edo arazo goiz prebenitzen eta antzematen, larriagotu ez dadin edo edonor bere burua arriskuan jartzera eraman ez dezan.

ESPAINIAKO HERRIAREN DEFENDATZAILEAK ARARTEKOARI BISITA EGIN ZION GASTEIZEN

Manuel Lezertua arartekoa Ángel Gabilondo Espainiako herriaren defendatzailearekin bildu zen Gasteizen. Gabilondo Arartekoaren egoitzara joan zen, 2021eko azaroan herriaren defendatzailearen kargua hartu zuenetik Euskal Herrira egiten zuen lehen bisita ofizialean.

Arartekoari erakutsi zion bi erakundeen arteko lankidetza bultzatzeko asmoa duela. Horrela, Gabilondoren iritziz, Estatuko herriaren defendatzaileak eta autonomia erkidegoetako defendatzaileek elkarrekin lanean jarraitu behar dute, herritarren eskubideak eta askatasun publikoak zaintzeko.

Arartekoak, bere aldetik, defentsa-erakunde horrekin lankidetzan jarraitzeko borondatea adierazi zuen eta bi erakundeen arteko harreman ona nabarmendu zuen.

Topaketa horren ondoren, bi defendatzaileak Iñigo Urkullu lehendakariarekin elkartu ziren Ajuria Enea jauregian.

HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXXV. JARDUNALDIAK

Inés Ibáñez de Maeztu jarduneko arartekoa, Arartekoko beste ordezkari batzuekin batera, Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXV. Jardunaldietan parte hartu zuen, Leonen. Topaketa horretan, **landa-ingurunean osasun-zerbitzua ematearekin lotutako arazoak** eta herritarren kexak aztertu zituzten defentsa-erakundeetako arduradunek.

Estatu espainolak osasuna babesteko daukan sistema publikoak orokorra eta unibertsala izan nahi du, gehienbat aurrekontu publikoen bitartez finantzatua dago eta gizon-emakume guztiei osasun-arreta berdin emango zaiela bermatzen du.

Alabaina, muga eta arazo asko ere baditu, eta, zenbaitetan, ez da nahikoa biztanleen premiei erantzuteko. Muga nagusietako bat landa-ingurunean gertatzen da, hainbesteraino non landa-inguruneko osasun sistemaz eta hirikoaz hitz egin baita eta biak bereizten baitira, desberdintasun handiak sortuz.

Gai horiek aztertu eta eztabaidatu ondoren, herriaren defendatzaileak topaketan ateratako ondorioak jakinarazi zituzten

OMBUDSPERSONAREN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN XXVII. BATZAR OROKORRA ETA XXVI. BILTZARRA

Topaketa horretara joan ziren herriaren defendatzaileak gai honetaz eztabaidatzen eta elkarri esperientziak adierazten aritu ziren: giza eskubideen aldeko erakundeak eta desberdintasun egoeran dauden pertsonen eskubideak bermatzea (desgaituak, indigenak, sexu- eta genero- aniztasunaren multzoko kideak, emakumeak, neskatoak, mutikoak, nerabeak, edadetuak, kalean bizi direnak edo migratzaileak).

Ines Ibáñez de Maeztu jarduneko arartekoak honako mahai-inguru honetan esku hartu zuen: “Babes sendotua lehentasunezko arreta behar duten taldeentzat”. Bertan aipatu zuen defentsa-erakundeek zer eginkizun duten LGTBI pertsonen giza eskubideak defendatzen eta babesten.

Azaldu zuenez, nahiz eta Euskal Herrian LGTBI pertsonek legez erabat aitortuta daukaten beren eskubide-berdintasuna, sexu-joeran eta genero-identitatean aniztasuna bizitzeak larriki baldintzatzen du enplegu duin baterako, etxebizitzarako eta osasunerako sarbidea, beste eskubide batzuen artean**.**

Horregatik, Arartekoak lan egiten du Euskal Herriko administrazio publikoek LGTBI pertsonenganako edozein bereizkeria-arrazoi desagerrarazteko neurriak eta jarduerak indartu ditzaten sustatzeko.

ARARTEKOAK GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALAREN URTEMUGA OSPATZEN DU

Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren urtemuga dela eta, Arartekoak hitzaldi batzuk antolatu zituen Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiarekin batera. Hitzaldiek izenburu hau izan zuten: "**Justizia klimatikoa lortzeko, estrategikoki auzitan aritzea**".

Hizlari izan ziren **Jaime Doreste** (ingurumen arloko abokatua eta Ingurumen Zuzenbideko irakasle elkartua Madrilgo Unibertsitate Autonomoan) eta **Lorena Ruiz-Huerta** (abokatua eta Espainiako Greenpeace-eko eragin juridikoko koordinatzailea).

Hizlarien azalpenen aurretik, Inés Ibáñez de Maeztu jarduneko arartekoak nabarmendu zuen estrategikoki auzibidera jotzeak ahalmena duela klima-aldaketaren kontrako borrokan agintari publikoei ezarri zaizkien betebeharrak betetzen eragiteko, eta balioa duela Espainiako sistema judizialean berrikuntza estrategiko gisa.

Eremu judizialetik kanpo, Arartekoak ere baditu tresna batzuk auzitan aritzeko modu horrekin nolabaiteko paralelotasuna dutenak: ofiziozko jarduerak eta gomendio orokorrak.

Ibáñez de Maeztuk garrantzitsutzat jo zituen *"gizartea aldatzeko eta giza eskubideetan eragiteko auzi estrategikoen eta Arartekoaren jarduera horien artean sor daitezkeen lankidetza-ahalmena eta sinergiak, izan ere jarduera horiek ingurumena eta, hortaz, denon eskubideak babestu eta zaintzera bideratuta daude"*.

HONDARRIBIKO ALARDEA

Irailaren 8an, Hondarribiko alardearen eguna, pandemian zehar bi urtez etenda egon ondoren berriz ospatu zena, Ararteko erakundea berriro joan zen herri horretara zalantzarik gabe eta irmo babesteko jai-gune horretan emakumeek gizonekiko berdintasun-baldintzetan parte hartzeko duten eskubidea. Horrela Arartekoak bat egiten zuen oso bidezkoa den aldarrikapenarekin Hondarribiko alardea herritar guztiena eta herritar guztientzat, bazterketarik gabe, izan dadin.

Helburu horrekin, Inés Ibáñez de Maeztu, Arartekoaren ondokoa, Arartekoaren ordezkaritzaren buru izan zen Hondarribiko Udaletxeko arkupeetan, Jaizkibel konpainia mistoari harrera emateko eta erakundearen babesa adierazteko herriko Kale Nagusitik *Arrankada* egin zuen unean.

JOSÉ MARÍA LIDÓN MAGISTRATUAREN OMENEZKO XVII. JARDUNALDIAK

Inés Ibáñez de Maeztu jarduneko arartekoak José María Lidón magistratuaren omenezko XVII. Jardunaldien itxiera-ekitaldian parte hartu zuen. Jardunaldi horiek "Eutanasia eztabaidagai" izenburupean egin ziren.

Bere mintzaldian, Ibáñez de Maeztuk aipatu zuen biztanleria zahartuz doala eta gero eta paziente gehiago daudela min kronikorako tratamenduaren premian, medikuntzak eta teknologiak etengabe aurrera egiten duten testuinguruan. Gure gizarteak gero eta gehiago egin behar diete aurre gai horiei.

Era berean, adierazi zuen gizartea gero eta sentsibilizatuagoa eta kontzientziatuagoa dagoela pertsonaren askatasun-duintasunak eta pazienteen eskubideak errespetatzeko beharraz.

HIZKUNTZA KOMISARIOEN NAZIOARTEKO ELKARTEAREN BILTZARRA

Inés Ibáñez de Maeztu arartekoaren ondokoak eta Raymond Théberge Kanadako Hizkuntza Ofizialen komisarioak eman zioten hasiera Arartekoak antolatutako topaketa horri, non honelako gaiez eztabaidatu bait zen: COVIDaren eragina eremu urriko hizkuntzetan, gizarte-sareek hizkuntza-komisarioei dakarzkieten erronkak, edo hizkuntza ofizialek zer eginkizun duten herriaren defendatzaileen betekizunen testuinguruan.

Bere mintzaldian, arartekoaren ondokoak adierazi zuen euskararen erabilerari dagokionez aurrerapen garrantzitsuak gertatu direla zerbitzu publikoen arloan, baina justizia edo segurtasuna bezalako arloetan oraindik ez dela bermatzen hizkuntza horretan artatua izateko eskubidea.

Ibáñez de Maeztuk gaineratu zuenez, aurrerapen horiek gorabehera, *"COVIDaren pandemiak berriro erakutsi du hizkuntza-eskubideak sarritan bigarren mailakotzat hartzen direla, osasun arloan gertatu den bezala, non sarritan osasun-larrialdiaren egoera erabili baita euskaraz artatua izateko eskubidea urratzeko"*.

Eta hauxe azpimarratu zuen: *"euskaraz artatua izateko eskubidea berezkoa du edozein zerbitzu publikotan eska daitekeen gutxienezko kalitateak, batez ere intimitateari, osasunari eta zainketei lotutako eskubideekin zerikusia duten zerbitzuetan"*.

Herrialde eta eskualde askotako zenbait ordezkarik hartu zuten parte biltzar horretan, eta Agurne Gaubeka Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria ere bertan izan zen.

Legeak zenbait eginkizun eman dizkio Ararteko erakundeari, besteak beste, euskararen eta gaztelaniaren ofizialkidetasunak berekin dakartzan herritarren hizkuntza-eskubideak babestea. Lan hori beste herrialde batzuetako antzeko erakundeekin batera egiten du, eta erakunde horiek IALC elkartean bilduta daude.

IALC elkartearen zeregina hauxe da: berdintasuna, aniztasuna eta hizkuntza-eskubideak sustatu eta bultzatzea mundu osoan, eta hizkuntza-komisarioei babesa ematea, lanbide-maila gorena lortu ahal izan dezaten baliabide hauek erabiliz:

Hizkuntza-komisariotzak sortzeko orduan, aholkuak ematea.

Prestakuntza, lanbide garapen, ikerketa eta informazio arloetan, elkarri baliabideak ematea erraztea.

Lankidetzan aritzea aniztasuna eta hizkuntza-eskubideak sustatu eta babestea helburu duten tankera bereko erakundeekin.

Hizkuntza-komisarioen eginkizuna eta garrantzia hobeto ezagutaraztea, eta gobernuei, Estatuko agentziei, akademikoei, hedabideei eta biztanleei, oro har, horretaz ohartaraztea.

Hizkuntza-komisariotza bat sortu nahi duten edo hizkuntza-eskubideak sustatu nahi dituzten eskualdeei laguntzea.

Aterlan enpirikoak elkarrekin partekatzea, hizkuntza-eskubideak bultzatzeko asmoz.

EUSKARALDIA 2022

Euskaraldiaren edizio berri honetan aktiboki parte hartu zuten Arartekoko lankideek**. Euskaraldiaren** helburu nagusia da euskararen erabilera sustatzea herritarren hizkuntza-ohiturak aldatzearen bitartez. Edizio honetan, banaka parte hartzeko aukeraz gain (*ahobizi* edo *belarriprest* rolen bitartez), taldean ere egin ahal izan zen, *ariguneen* bitartez, une oro euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen duten guneak.

ARARTEKOAREN WEB ORRI BERRIA

Arartekoak bere web orri berria aurkezten du 2022an. Proiektu hori bat dator lortu nahi duen helburuarekin: berritzen jarraitzea eta bere zerbitzuak erabilgarriagoak eta hurbilagoak izatea.

Webak irudi modernoa, grafikoa du, eta eduki berriak; besteak beste, nabarmentzekoak dira Haur eta Nerabeentzako Bulegoari eta Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoari dagozkienak.

Webgune honek aukera ematen du bere ataletan nabigatzeko, gure zerbitzuak ezagutzeko eta modu erraz eta intuitiboan haietara sartzeko, gure lanak eta dokumentuak erraz bilatzeko eta bere bilatzaile fazetatua erabiltzeko, erakundearen eduki publiko guztia behar bezala eguneratu ahal izateko.

ARARTEKOAK GARDENTASUN-ATARI BERRI BAT ABIARAZI DU

Erakundeari buruzko informazioa errazteko web tresnak berriztatzeko proiektuen artean, Arartekoak gardentasun-atari berri bat eraiki du

Atari berri horrek irudi moderno eta bisuala proiektatzen du, aurreko ataria eguneratzen eta errazten du eta nabigazio intuitiboagoa du. Gardentasun-atariak hiru atal zabal ditu: Arartekoaren gaineko informazio orokorra, erakundearen inguruko informazio publikoa (bere lana, jarduerak, antolaketa, aurrekontua eta kudeaketa ekonomikoa) eta Arartekoak daukan informazioa lortzeko eskubidea baliatzeko prozedura.

Atari hau oso bitarteko erabilgarria da Arartekoak gardentasunarekin eta bere informazioa eskuratzearekin duen konpromisoa indartzeko.

ARARTEKOAREN ZERBITZU-KARTA ALDATU DA

Arartekoak bere zerbitzu-kartaren testu berria onartu du, erakundeak hartu zituen konpromisoak berritu eta eguneratzeko asmoz, zerbitzuak egiteko moduari, eskubideak baliatzeko informazioa emateari eta gardentasun- eta informazio- jarduera egokienak ahalbidetzeari dagokienez.

Orain arte indarrean zegoen testua 2013koa zen, eta harrezkero igaro den denbora eta gertatu diren legealdaketak kontuan hartuta, komenigarria zen hori eguneratzea.

Arartekoaren zerbitzu-karta tresna erabilgarria izateko eratu da, herritarrek jakin dezaten erakundeak zer zerbitzu egiten dituen eta zer kalitate-konpromiso hartu dituen bere eginkizunak betetzeko orduan.

ARARTEKOAK BAT EGIN DU 2030ERAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMAREKIN

Arartekoak erakundeak bat egin du *2030erako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programarekin*. Horrek esan nahi du jarduerak ikusarazi behar direla neurri handi batean erakundean ezarrita badaude ere Garapen Jasangarriko Helburuei laguntzeko, ingurumen-irizpideen arabera egindako kontratazio publikoaren gehikuntzari eta datozen urteetarako ondasun eta zerbitzuen kategorietan erosketaren ingurumen-faktoreari dagokienez.

Horren bidez, eremu publikotik (eta hori hornitzen duen eremu pribatutik) datozen karbono-isuriak murriztu nahi dira, iturri berriztagarrietatik hornitzen den elektrizitatea areagotu, eta kontratazio publikoan berrerabil daitezkeen ontzi birziklagarriak gehitu.

EITB MARATOIA

Hogeita hirugarren urtez jarraian, EITBk gizartean eragin handia duen gai baten inguruan, alegia, esklerosi anizkoitzaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina jarri zuen martxan. Kanpainaren amaieran, **EITB Maratoia** izeneko jardunaldia ospatu zen. Jardunaldi horretan, ekarpenak egiteko deiak egiten dituzten herritarrei arreta ematen zaie, *dei-zentro* batean. Inés Ibáñez de Maeztu jardunaldiko arartekoak jardunaldi horretan parte hartu zuen modu aktiboan, telefonoa hartu baitzuen dei-zentro horretan.

Kanpaina horren xedea izan zen herritarrak sentsibilizatzea dohaintzak egin zitzaten, arazoa konpontzen laguntze aldera. Halaber, ikerketak egiteko funtsak eskuratzea beste xede bat izan zen, esklerosi anizkoitza jasan duten eta jasaten ari diren pertsonen bizi kalitatea hobetze aldera.

GASTEIZTXO PROGRAMARAKO LANKIDETZA

Arartekoak haurrei eta nerabeei dagokienez ezarrita dituen jarduketa-ildoetako bat honako hau da: haien eskubideak hedatzea eta **giza-eskubide guztiekiko errespetu-kultura** zabaltzea gazteenen artean. Horregatik, Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jarraitzen dugu, ***Gasteiztxo Albistegia*** egiteko orduan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzen dute eta erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati- zein telebista-programa bat edo aldizkari bat prestatzeko. EAEko institutu, lanbide-irakaskuntzako ikastetxe eta beste ikastetxe batzuetako ikasle-taldeek ere bisitatzen gaituzte.

ARARTEKOKO HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

2010. urtean, Arartekoak Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sortu zuen, erakundearen lana espezializatzeko eta bultzatzeko, haur eta nerabeen eskubideei dagokienez. Lan horretan ezin zen alde batera utzi umeek entzunak izateko duten eskubidea; horregatik, ia aldi berean **Haur eta Nerabeen Kontseilua** ere eratu zuen, bere erabakiei gazteen ikuspegia gehitzeko, ardura zaizkien gaiez duten ikuspuntua aintzat hartzeko, proposamenak kontrastatzeko, kezkak biltzeko...

Kontseilua, gaur egun, Euskadiko hainbat herritatik datozen 14 eta 17 urte bitarteko 24 neska-mutilek osatzen dute.

Haur eta Nerabeen Kontseiluaren lana urtero gai baten inguruan egituratzen da. Urtean barrena 4 bilera egiten dira. Lehen jarduera-urteetan, gaia parte-hartzaileek berek aukeratzen zuten, beraiek edo Arartekoak proposatutako gai batzuen artetik. Hala ere, 2017tik aurrera (orduan, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua **ENOC Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarean** sartu zen) Kontseiluak bat egiten du erakunde horrek urte jakin horretarako erabakitzen duen gaiarekin.

Honatx urte hauetan zehar landutako gai batzuk: familiek behar duten laguntza, haur eta gazteen osasun mentala, haur eta nerabeen eskubideak inguru digitalean, berdintasuna maitasun-harremanetan, adierazteko eta iritzia emateko eskubidea, onespena bikote-harremanetan, COVID-19ak haurren eskubideetan izan duen eragina, eta abar.

ENYA FORUMA 2022: JUSTIZIA KLIMATIKOA

ARARTEKOAK ANTOLATUTA, NAZIOARTEKO TOPAKETA HONEK EUROPAKO 17 ESKUALDETAKO ORDEZKARIAK BILDU ZITUEN EUSKADIN

ENYA (European Network of Young Advisors) 13 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeek Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarean (ENOC) parte hartzeko organoa da. Ararteko Nerabeen Kontseiluak aktiboki parte hartzen du programa horretan eta sare horretan 2017. urteaz geroztik.

Urtero, lantzeko eta administrazio eskudunei gomendioak egiteko gai bat aukeratzen da. 2022an **Justizia klimatikoa** zen aukeratutako gaia, eta parte hartzaile guztiek elkarrekin gomendio komunak bukatzeko egin zen **ENYA FORUMA** deritzana.

Ararteko Haur eta Nerabeentzako Bulegoak antolatuta, **ENYA FORUMA 2022** Euskadin egin zen, ekainean. Europako 17 eskualdetako 34 nerabe elkartu ziren, horietako bi Ararteko Kontseiluaren ordezkari gisa, lantalde bakoitza jorratzen aritu den gaiez egin zituzten hausnarketak elkarri adierazteko:

Ekintza klimatikoa eta ingurumen arloko erabakietan parte hartzeko eskubidea

Iparraldea-Hegoaldea: klima-aldaketak areagotu egiten ditu desberdintasunak

Kontsumoa eta karbono-aztarna: hazkuntzaren paradigma zalantzan jartzen

Mugikortasun jasangarria eta lurraldearen antolamendua

Energia-iturriak: horien erabilera eta kliman eta gure bizitzetan duten eragina

2022an lurralde hauek esku hartu zuten: Andaluzia, Albania, Flandria, Bulgaria, Katalunia, Kroazia, Euskadi, Estonia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta, Polonia, Eslovakia, Ipar Irlanda, Gales, Eskozia eta Jersey.

Ukrainak programan parte hartzen du, baina, zoritxarrez, ez zuen parte hartzerik izan.

Lan-saioez gain, lantaldeak isuriak konpentsatzeko ingurumen-jarduera bat egin zuen Urdaibaien, *Lurgaia Fundazioa*ren gidaritzapean.

Orobat, “Ekintza klimatiko” bat diseinatu zuten, Europa mailan koordinatua, parte hartzeko eta entzunak izateko eskubidea gauzatzeko.

Ararteko arreta berezia jarri nahi du nerabeen partaidetza-prozesuan, horiek giza eskubideak defendatzearen aldeko kulturaren agente biderkatzaileak baitira.

Nazioarteko topaketa hau baliatuta, Ararteko erakundeak Europako hainbat eskualdetako Haurren Defentsa-erakundeen bisita hartu zuen.

ARARTEKOAREN NERABEEN KONTSEILUKO NESKA-MUTILEK EUSKO LEGEBILTZARREAN AURKEZTU DITUZTE JUSTIZIA KLIMATIKOARI ETA HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEI BURUZ EGIN DUTEN LANAREN ONDORIOAK

Administrazio eskudun guztiei eskatu diete haurrek ingurumen osasuntsua izateko duten eskubidea errealitate bihurtzeko ahaleginak areagotzeko.

Kontseiluko neska-mutilek jarduera batean parte hartu zuten legebiltzarkideekin batera. Inés Ibáñez de Maeztu jarduneko Arartekoarekin batera gazte hauek Bakartxo Tejeriari, Eusko Legebiltzarreko lehendakariari, klima-larrialdiak haurren eta nerabeen eskubideei nola eragiten dien hausnartzeko lanaren ondoren 2022an egin zituzten gomendioen dokumentua eman zioten.

Nabarmentzekoa da Hezkuntzari dagokionez egin duen lehen gomendioa. Gomendio hau hezkuntza-maila guztietan klimari buruzko irakasgai bat sartu beharrari lotuta dago, ikaskuntza aktiboko metodoak aplikatuz.

LUR KOLOREA. ARARTEKOAREN ERREPORTAJEA HAURTZAROARI ETA JUSTIZIA KLIMATIKOARI BURUZ

Elkarrizketa kolektiboa eta belaunaldiartekoa da, klimaren krisiak haurrengan eta nerabeetan duen eraginari buruz, eta koloreekin, eraldaketarako inspiratzen duten kontzeptuak identifikatzen ditu.

Oro har, haurtzaroa egoera bereziki zaurgarri batetik abiatzen da eta ez du ordezkaritzarik subjektu politiko gisa. Klima aldaketari dagokionez, hasteko, haurrak eta nerabeak bidegabekeria egoeran daude. Krisi klimatikoa gutxien eragin dutenak izan arren, horren ondorioak gehien jasango dituztenak dira eta gainera, erabakiak hartzeko benetako eskumen gutxien dutenak dira.

Erreportajean justizia klimatikoari eta haurren eskubideei buruzko elkarrizketa kolektibo bat aurkezten da. Hedapen materiala eta gonbidapen gisa erabili nahi da klima aldaketari buruz hausnartzen hasteko, bai eta haurren eta nerabeen eginkizunei buruz eta beren eskubideak babesteko moduei buruz hausnartzeko ere.

Elkarrizketan koloreak erabiliko dira, hala nola gorria / ekintza, zuria / gardentasuna, marroia / gardentasuna, laranja / larrialdia, etab. Horien bidez, klima krisiaren aurrean eskubideak babesteko erakundeen jardunaren inguruan hausnartu nahi da. Ararteko erakundea eskubide horiek babesteko eta sustatzeko hurbileko erreferentzia da, gazteenentzako ere.

2022an, Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseilua lanean aritu da krisi klimatikoak haurren eta nerabeen eskubideengan duen eragina aztertzeko. Hausnarketa ariketa hori, aldi berean, Europa mailan ere bultzatu da Kontseiluaren laguntzarekin, ENYA (European Network of Young Advisors) programaren bidez, eta erakundearentzat baliagarri izan da gazteek gaiaren inguruan dituzten kezkak zuzenean entzuteko, bai eta beste ezagutza agente batzuekin (hala nola zientzia edo aktibismoa) hausnartzeko ere.

Erreportajea Al Borde Films gizarte ekimeneko kooperatibak egin du eta ordu erdiko iraupena du, gutxi gorabehera. Eskuragarri dago erakundearen YouTube kanalean. Azpitituluak izango ditu euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Haur eta NERABEENTZAKO BULEGOA

- **Kexa kopurua:** Berariaz haurrak eta nerabeak aipatu dituzten edo horiek tartean egon direla adierazi duten kexei dagokienez, 2022an, guztira 560 espediente izan dira, hau da, Arartekoan aurkeztutako kasu guztien %19,71. Jasotako kexa guztien artean, bi baino ez ditu adingabe batek zuzenean aurkeztu.

- **Atal materialak:** 2022. urtean, hezkuntza-esparruari lotutako gaiak izan dira ohikoenak (%39,6), eta haurren bizitzako baldintza materialei buruzkoek gertutik jarraitu diete (%31,2). Gainerakoek zerikusia dute familiei babesa emateko politikekin, babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuekin (osasunaren eta gizarte- eta osasun-gaien esparruetakoak) eta bestelako gai batzuekin (kirola, justizia, segurtasuna, kutsadura akustikoa, atzerritarrak eta abar).

- **Bizi-maila egokia izateko eskubidea:** haurren pobrezia-egoerak saihesteko, beharrezkoa da, besteak beste, seme-alabak dituzten familien gutxieneko diru-sarrerak bermatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan, eginkizun hori Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak hartzen du bere gain, batez ere. Aurreko urteetan bezala, horren inguruan aurkeztutako erreklamazioek, neurri handi batean, zerikusia dute diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) ukatzearekin, etetearekin eta iraungitzearekin. Gainera, bizitzeko gutxieneko errenta Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uztearen ondorioz, prestazio horri lotutako kexa-kopuruak gora egin duela atzeman da. Etxebizitza bat eskuratzeari dagokionez, berriz ere, kexetan duina, egokia eta ekonomikoki irisgarria den etxebizitza bat eskuratzeko arazoak azpimarratu dira, bai eta seme-alabak dituzten familiek babes publikoko etxebizitzak alokairuan eskuratzeko premiazko beharrizana ere.

- **Heziketarako eskubidea:** aurten, heziketari buruzko lege berriaren testuaren inguruko eztabaida handia egon da, baina 2022ko hasierako hilabeteetan jasotako kexen zati handi bat hezkuntza-eremuan COVID-19aren kasu positiboak eta susmagarriak kudeatzeko ezarritako protokoloen ingurukoak izan dira. Murrizketa-aldia igaro ostean, honako hauek izan dira erreklamazioetako gai nagusiak: eskola-segregazioko egoerak, desadostasunak esleitutako hizkuntza-ereduarekin eta A hizkuntza-ereduko eskaintza eskasarekin, berdinkideen arteko jazarpen-egoerak eta tratu txarrak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako baliabide nahikorik eza, bekak ukatzea eta abar.

- **Indarkeriatik eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea:** 2022. urtean, esparru horretako erreklamazioetarako gai nagusiak bere horretan jarraitu dute, zehazki, familien zalantzak eta ziurtasunik eza babesgabetasuna baloratzeko espedienteak abiaraztean, atzerapena programatutako programa edo

laguntzaren bat balioestean edo aktibatzean, desadostasunak jadanik ezarritako babes-neurrien garapenean edota babesgabezia-aitorpenean. Gainera, kontsultak eta erreklamazioak urtero areagotzen jarraitzen dute gurasoak era liskartsuan banantzen diren kasuetan. Familia-erreferenterik gabeko gazte atzerritarrek sustatutako jarduketen helburu nagusia emantzipaziorako laguntzak eta adin-nagusitasunaren ondorengo etapetako zailtasunak dira oraindik ere. Haurren eta nerabeen sexu-abusuko eta -esplotazioko egoerei arreta emateari dagokionez, Arartekoaren 2021eko gomendio orokorrean jasotako proposamenak betetzeko eta indarkeria matxistaren biktima diren haur eta nerabeei arreta emateko jarduketen jarraipena egin da.

- **Familiarako eskubidea:** familiei laguntzeko politikei buruzko gaiak egonkor mantendu dira urteetan zehar, eta honako hauek ere errepikatu dira 2022an: atzeratu egin dira ardurapeko seme edo alabagatiko nahiz uztartzeko laguntza ekonomikoak ukatzearen aurka jarritako errekurtsoen ebazpenak; erakunde honek izapidetutako guraso-baimenekiko desadostasunak (jaiotza eta edoskitzea), EAEko administrazio publikoen zerbitzura dauden pertsonen kasuan soilik, esleitutako eskumenak kontuan hartuta; arazoak familia ugariaren titulua izapidetzean; zaintzarik ez duten guraso bananduei seme-alabei buruzko informazioa emateari uko egitea. Epailearen aginduaren bidezko familia-elkarguneetan, ia kexa guztiak daude lotuta zerbitzu publiko horiek epaileek baloratzeko ematen dituzten txostenen edukiarekin.
- **Osasunerako eskubidea:** 2022an ere, kexa-kopuru handi batek zerikusia izan du osasun-egoerarekin eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz herritarrei ezarritako betebehar eta murrizketekin: hezkuntza-arloko protokoloak eta antigeno-proben bidez egindako diagnostikoetan oinarrituta COVID pasaportea lortzeko ezintasuna izan dira kexa horietako gai nagusiak. Aldez aurretik programatutako hitzorduak bertan behera uzteagatik edo ebakuntza kirurgikoetarako itxaronaldiak luzatzeagatik ere erreklamazioak jaso dira. Osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeen arretan, paziente kronikoak Euskaditik kanpoko zentro espezializatuetara bideratzearekin lotutakoak nabarmentzen dira, gure lurraldean horrelako zentrorik ez dagoenean. Hori da elikadura-nahasmendua duten gazteen kasua, bai eta patologia mental larria duten bi nerabeena ere; izan ere, ospitaleko akutuen unitateetan tratatu ondoren, medikuaren gomendioa zuten egonaldi ertain-luzeko zerbitzuetan sartzeko.
- **Umeen eskubideak justiziaren arloan:** esparru horretan eragile juridikoekin lan egin behar da, eta aipatzekoak dira erregistro zibiletan izapideak egiteari lotutako zenbait kexa. Horietako batzuek zerikusia dute aldez aurretik hitzordua eskatzeko sistemarekin, hitzordua lortzeko zailtasunarekin eta epeak atzeratzearekin. Bestalde, aurten lehen ekitaldi osoa izan da espetxeen funtzionamenduaren gaineko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitu zitzaizkionetik, eta, ildo horretatik, areagotu egin dira espetxean dauden pertsonen kexak eta kontsultak familiarekin komunikatzeari eta bizikidetzari dagokionez, bai eta zigorrak euskal espetxeetan betetzeari dagokionez ere.
- **Jolasteko, atseden hartzeko eta jarduera artistikoak eta kirol jarduerak egiteko eskubideak:** haurren eta nerabeen kirolari buruzko erreklamazio gehienak aurreko txostenetan dagoeneko jorratutako gaiei buruzkoak izan dira: COVID-19aren garaian eskola-kirolaren garapenean ezarritako murrizketak eta adin jakin batzuetan multikirola derrigorrezkoa izatea.

ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

Ararteko jo dezakezu

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

Zer da Ararteko?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde independientea da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

Zer egiten du Ararteko?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

Noiz jo Ararteko?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean errekla-matu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan

Noiz ez jo Ararteko?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

Nola egin kexak?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.eus
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

Nora joan?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.
20005 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88
Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu

Deskargatu 2022 urteko memoriaren bertsio digitala